UDAZKENEKO GERTAERAK

Udazkenean mahatsak biltzen dira.

Zuhaitz askori hosto guztiak erortzen zaizkie udazkenean, adibidez, pikondoari, almendrondoari, makalari…

Beste zuhaitz batzuei,berriz, oso hosto gutxi erortzen zaizkie, adibidez, palmondoari, eukaliptoari, pinuari…

Udazkenean, gaztainondoak fruituak ematen ditu: gaztainak. Gero, biluzik geratzen da: hostoak galtzen ditu.

Agur, gaztainondo!

Datorren urtera arte!

Udazkenean hotz egiten hasten da eta, horregatik, trikuak gordelekuan sartzen dira,hotzetik babesteko. Hantxe geratuko dira, lo, eguraldi ona egiten hasi arte.

Udazkenean ahateek, zikoinek, enarek… alde egiten dute lur epelagoetara. Milaka eta milaka kilometro egiten dituzten hegan!

Udaberria iritsitakoan berriro itzuliko dira udazkenean utzitako lekuetara.

1. Klikatu irakurgaian aipatutako udazkeneko bi fruituak:

gaztaina tomatea mahatsa sagarra

2. Idatzi BAI ala EZ.

Udazkenean zuhaitz guztiei zaizkie hostoak erortzen, baina batzuei .

3. Egin gurutzea udazkenean hosto guztiak galtzen dituzten zuhaitzen ondoan.

Gaztainondoa Almendrondoa

Palmondoa Eukaliptoa

Pikondoa Pinua

4. Idatzi esna ala **lo**.

Udazkenean trikuak geratzen dira, eguraldi ona egiten hasi arte.

5. Idatzi udazkenean urrutira joaten diren hiru animaliaren izenak.

LIVEWORKSHEETS